

Miguel Lazpiur

«Lafonten lana KESen, guztien arteko adostasuna lortzea da»

1942, Bergara. Ubera auzoko Agerregoiko baserritarra izan zuen ama, aita berriz kaletarra. Lazpiur enpresako nagusia da: forja eta automatizazioan espezializatua. Confebaskeko presidentea da. Hiru urterako kargua da eta bigarrena betea du: “Epe motzera ez dut nire burua jubilatua ikusten. Confebasken hartutako konpromisoa amaitu behar dut lehenik, eta enpresako lanak ere ez ditut berehala lagako” esan digu. Enpresako ateak zabaldū dizkigu, alai eta jator.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Judit Fernandez

Miguel Lazpiurren aitonak zapata fabrika eduki zuen 1936ko gerra aurreko garaian. Gerraostean Jose Lazpiur, aita, enpresa munduan hasi zen berriz ere. Bergarako enpresaz gain, Lazpiurrek beste hiru enpresa dauzka munduan: “Enpresetako jendeari erabakiak beren kasa hartzen irakatsi diet, bestela ezinezkoa litzateke enpresak aurrera ateratzea”. Hala ere, gazteengan ez du lehen zegoen enpresari sena antzezan: “Jendeak funtzionario izan nahi du, lan gutxi egin eta ondo bizi. Horrek herria pobretzen du ordea. Ekimen pribaturako joera jaitsi da” diosku Lazpiurrek.

Politika hizpide jarrita hasiko gara. Nolako eragina du egoera politikoak ekonomian? Joan deneko bake eta normalizazio prozesuak, esaterako?

Gu politika arloan ez gara sartzen. 500.000 behargin eta 15.000 enpresa daude EAEn. Guretzako bake prozesua deitua bukatu den bezala bukatzea zoritxarrekoa izan da. Gu saiatu gara prozesua laguntzen. Gaizki atera da eta buru-makur gaude.

ETak zerga delakoa eskatzen jarraitu zuela aipatu da...

Zerga horri guk estortsioa deitzen diogu...

Delakoa diot.

Prozesua izan arren edo izan omen zen bitartean ETak ez zuen estortsioa

geratu. Beraz, egoera oso gaizki eraman genuen. Hori gabe ere nahikoa lan daukagu gure proiektuak aurrera ateratzen. Izan ere, hemen aberastasuna ekimen pribatuak sortzen du, administrazioa politikarien zeregina da, baina dirua, aberastasuna, enpresariak sortzen dute.

Elkarteen gaineko Zergan gorabeherak izan dira tokian tokiko Diputazioetan...

Hitzak bilatzen ari naiz, umetatik euskalduna bainaiz...

Zuk lasai jardun zure berbetan...

Gu mutiko ginenean ez ziguten euskaraz berba egiten lagatzen, gure eskola Francoren garaiakoa izan da, geure euskara ez da akademikoa, nirea Bergarako *euskeria* da.

“Emakumeei familiaren ardura osoa kendu behar zaie. Ahalegin horretan ari gara, karrera teknikoak ikas ditzaten laguntzen bereziki”.



Ederto...

Elkarteen gaineko Zerga ez berdintzea notizia txarra da. Batetik, beroren diferentziengatik, eta bestetik, ematen dihardugun imajinarengatik. Espainia aldean errekurtsio asko jartzen dabilta, European ere adostasun faltaren imajina oso txarto ikusia da. Guk ez dugu chuneko 28 bakarrik eskatzen, gutxiago eskatzen dugu: 24. Media deritzaguna chuneko 24 da. Alemania chuneko 15era gutxitza doa urte berriaren hasieratik eta erdaraz esaten den bezala, horrek lehiakortasun faktorean eragin okerra dauka. Akordiorik ez egotea kaltegarria da denontzat.

Ekonomia eta politika binomioa hizpide: zein da zeinen menpe?

Ez dira biak nahasi behar, erdaraz esaten den bezala, politika herria gobernatzeko artea da. Politika herria gobernatzeko da eta ekonomia aberastasuna sortzeko. Gu, nahitaez, beti gaude politikariaren menpe, eta politikoak herriak hautatuak dira.

Ekonomiak "goia" jo duela esan du Confebaskek. Egiguzu egoeraren azalpen zehatzagoa...

Ekonomia Euskal Herrian, Euskadiri begira ari naiz, azken 15 urteotan ondo joan da eta momentu honetan ez dago gaizki. Ondo dago. Adegiko datuek horrela esaten dute: "Gipuzkoako industrian moteltze moduko bat izan da urte hasieratik, apaltze hau bigarren seihilekoan areagotu da, bere hazkundea ehuneko bostaren inguruan izaki". Hori asko da. Langabeziarik ez dago, aberastasun handia dago, baina laino beltzak datoz: krisi finantzariaren eragina ez dakigu zenbaterai-

nokoa izango den, inork ez daki. Ekonomia finean konfiantza da eta konfiantza hori galtzeko edozein gauza nahikoa da. Petrolioaren prezioarekin harritu gara berriz ere, gora joan da, horrek problemak sortzen ditu. Dolarren paritatea bestalde: gaur 1,4 da kotizazioa. Noski, AEBetako merkaturak ona da guretzat eta ezin dugu baldintza horietan produkturik bidali hara, ezta dolarra erabiltzen den merkaturara ere, Txinara esaterako. Horiez gain lehengaiaren prezioa eta inflazioa kontrolatzea da gure erronka, batez ere European eta Espainiaren arteko diferentziala. Halaber, ez dugu lehiakortasuna galdu behar.

**"Politika herria
gobernatzeko da eta
ekonomia aberastasuna
sortzeko. Gu, nahitaez,
politikariaren menpe gaude,
eta politikoak herriak
hautatuak dira"**

Liberalismoa da egungo merkatuaren ezaugarria. Gustuko al duzu joera hori politikan nola ekonomian?

Barkatu iezadazu... liberalismo hitza ez dut aspaldian erabili ere egin...

European joera hori gailendu ei da, ordea.

Ez noa kontzeptu politiko horretan sartzeraz, ez da nire lana. Gaur egun arlo ekonomikoan ekimen pribatua da garrantzizkoena, arlo hori ondo gestioatzea. Gure historiak erakutsi duenez, merkatu eta enpresa librea egiten den tokietan sortzen da aberastasuna.

"Lana bizitzeko" edo "bizi lanerako" dilema zailentzen jarri du liberalismoak. Estresa sortu du pertsonengan... Konforme.

Merkatu liberala aipatzean, hasi berrien "zabor kontratua" edo gaizki araututako lan ordutegia sartzen ditut. Berba asko egiten da alferrik. Nahi al duzu lantokira jaitsi eta gure mutilei galdetzea ea estresatuta bizi diren?

Agian zurean ez dago halakorik, enpresa sendoa delako.

Ez. Gure enpresan denok lan egiten dugu hobeto bizi izateko. Euskal Herrian egun sekula bizi ez den moduan bizi da. Estresa dagoela? Askotan geuk sortzen dugu estresa: neguan eskiatzera eta udan bidaia luzetan joanda. Horiek gauza pertsonalak dira, norberak zehaztu behar dituen.

Industria izan da euskal ekonomiaren sektore indartsua. Sektorea behera zihoan inpresioa zabaldu zen. Zertan da gaur egun sektorea?

Industria oso inportantea da Euskal Herrian, Barne Produktu Gordina- ren ehuneko 30a hartzen du industriak. Industria ondo joan denean Euskadi ondo joan da eta gaizki joan denean ez. Momentu honetan ez doa gaizki, azken bi urteotan hobetu da, batez ere European eta bereziki Alemanian ondo doalako. Euskadik ehuneko 60-70a esportazioarako ekoizten du, gaur egun Euskadi esportatzailea da bereziki.

Confebaskeko presidente modura: nola daude harremanak KESaren (EAEko Kontseilu Ekonomiko eta Soziala) barruan?



TXIKIPOLIT JATETXEA

Musika plaza,
20800 Zarautz
Tel: 943 83 53 57
e-posta: info@txikipolit.com
web orria: www.txikipolit.com

KESen, noski, iritzi desberdinak daude. KESeko presidentearen [Antxon Lafont] lanak parte guztien arteko adostasuna lortzea izan behar du. KES arazo sozialak aztertzeke elkarrekin da. KESen gauza onak egiten ari dira, oso beharrezkoa da. Eusko Jaurlaritzari eta, oro har, erakunde guztiei iritzia emateko eratu zen. Adostasuna lortzea da presidentearen lana, eta badakit ez dela erraza egun, batez ere ELAk hartu duen konfrontazio jarrerarekiko etengabea dela-eta.

Antxon Lafontek sindikatuen alde egiten duela esan nahi duzu?

Sindikatuak jarraituko da. Ala ez?

Antxon Lafontek "Lan arloan, kontsentsu eza da krisiaren sorburua" dio.

Bai. Hola da. Baina, atzera diot, presidentearen lana eta erresposabilitatea adostasuna lortzea da. Eta ez da erraza batez ere ELAk hartu dituen jarrerarekiko maximalistengatik. ELAren estrategiak elkarriketa soziala zeharo baldintzatzen du, gauza asko oztopatzen eta geratzen ditu. Enpresak horregatik aurrera goaz. Enpresetan, tokian toki, konbenioak lortzen dira. Bestela geldituta egongo ginateke.

Iraganean langileriaren sektore batek ELA enpresariaren aldean paratzen zela zioen.

ELA negoziazioetan gogorra izan da beti, baina betiere akordioetara ailegatzen zen. ELAk une batez bere estrategia zeharo aldatu zuen ordea. ELAren jarrerak ez du ez KESn ez enpresetako konbenioetan ez inon laguntzen, denok kezkatuta gauzka.

Sindikatuarekin harremana ondo daramazu zure enpresan?

Lehenago ELAk izan zuen gehiengoa, baina orain ez dugu komiterik. Langileak, oro har, sindikatuarekin aspertu ziren, eta ikusirik nirekin hitz egitea eta akordioa lortzea erraza dela, hiru urterako akordioa sinatu dugu.

Nola bizi duzu enpresen deslokalizazioaren joera?

Deslokalizazioa beti izan da, ez da oraingo fenomeno. Deslokalizazioa dago hemendik kanpora eta kanpotik hona. Normala da hemendik joatea kanpoan esku lana merkeagoa delako, kanpotik hona etortzea normala den



"Adostasuna lortzea da presidentearen lana, eta badakit ez dela erraza egun, batez ere ELAk hartu duen konfrontazio jarrerarekiko etengabea dela-eta".

bezala. Merkatuaren exigentziak dira eta errespetatu behar ditugu. Beraz, aukera hori zabalik lan egin behar dugu, jendea kanpotik etorriko baita modu batez edo bestez. Euskal Herrian erakargarritasuna sortu behar dugu enpresan, batez ere teknologia altuko enpresak antolatu behar dira, eta horretarako pertsonak ondo prestatuak behar ditugu.

Immigrazioaren gaia nola ikusten duzu?

Problema nahiko konplikatu da. Enpresaren ikuspegitik aukera bat izan daiteke etorkinena. Egun jubilatzen den bakoitzeko ez da beste bat jaiotzen: 0.97an gaude. Hamar urte barru berriz, jaiotza-tasa dela-eta, bi

jubilatuaren lekua hartzeko bertan jaiotako pertsona bakarra izango da.

Zelan konpondu arazo hori?

Emakumeak lan munduan are gehiago sartzea nahi dugu, asko etorri dira lantokietara baina ez nahikoa. Emakumei familiaren ardura osoa kendu behar zaie. Ahalegin horretan ari gara, karrera teknikoak ikas ditzaten laguntzen bereziki. Eskoletako eta enpresetako orientabideak ari gara lantzen. Horiek ondo landuz gero erraz kolokatuko baitira. Lanbide heziketarako edota ingeniaria izateko aukerak zabalik daude, unibertsitateko karrera batzuk eginez baino aukera gehiago dago. ■